

ZIURTAPEN POLITIKA  
APLIKAZIOA, KODE SINADURA ETA GAILUA

---

Izenpe 2024

Dokumentu hau IZENPErena da. Kopiarik egitekotan, osorik kopiatu daiteke soilik



## ALDAKETEN KONTROLA

---

BERTSIOA	DATA	ALDAKETAK
1.1	2021/10/06	<p>Hau gehitu da:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>– Aurkibidea.</li><li>– Aldaketen kontrolaren taula.</li><li>– Gailuaren ziurtagiriaren definizioa.</li><li>– Ziurtagirien zenbatekoari dagokion atala.</li><li>– Datuen pribatutasunari eta babesari buruzko epigrafea.</li></ul> <p>Hauek eguneratu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>– Aplikazio-ziurtagirien eta kode-sinaduraren definizioak.</li><li>– Bizi-zikloaren deskribapena.</li><li>– Ziurtagirien profilei dagokien atala.</li></ul>
1.2	2022/10/13	<p>Epigrafeak,</p> <ul style="list-style-type: none"><li>– Azala: eguneratzea.</li><li>– 2.4: ziurtagiria baliogabetzea. Baliogabetze prozedura eguneratzen da.</li><li>– 5: Informazioaren segurtasunari buruzko erreferentziak sartzea.</li><li>– 6 y 7: epigrafeen ordenaren aldaketa.</li><li>– Dokumentua generoa barne hartzen duen hizkuntzaren ikuspegitik eguneratzen da.</li></ul>
1.3	2024/08/02	<p>Epigrafeak,</p> <ul style="list-style-type: none"><li>– 2.2 akats zuzenketa</li></ul>



## AURKIBIDEA

1	ZIURTAGIRIEN DESKRIBAPENA .....	4
1.1	DEFINIZIOA .....	4
1.2	ERABILERA ESPARRUA .....	4
1.3	ZIURTAGIRIA IDENTIFIKATZEA .....	4
2	ZIURTAGIRIAREN BIZI ZIKLOA .....	5
2.1	ZIURTAGIRIA ESKATZEA .....	5
2.2	ZIURTAGIRIA JULKITZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA .....	5
2.3	ZIURTAGIRIA EGIAZTATZEA .....	5
2.4	ZIURTAGIRIA EZEZTATZEA .....	6
2.5	ZIURTAGIRIAK BERRITZEA .....	6
3	ZENBATEKOA .....	6
4	ZIURTAGIRIEN PROFILAK .....	6
5	INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA .....	7
6	ALDAKETAREN KUDEAKETA .....	7
7	ARAZOAK KONPONTZEKO MEKANISMOAK .....	7



Dokumentu honek Aplikazioen, Kode Sinaduren eta Gailuen ziurtagiriei dagokien *Ziurtapen Politika* jasotzen du. *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SA* enpresak (aurrerantzean Izenpe) jaulkitzen ditu ziurtagiri horiek.

Dokumentu honen helburua da Izenperen *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* mota horretako ziurtagirietarako definitutakoa zehaztea eta osatzea.

## 1 ZIURTAGIRIEN DESKRIBAPENA

### 1.1 Definizioa

– Aplikazioa

Ziurtagiri kualifikatu gabea; aplikazio informatikoeak erabiltzen dute, egiazkotasuna eta segurtasuna ziurtatzeko, eta 3 urteko indarraldia du.

– Kode-sinadura:

Ziurtagiri kualifikatu gabea. Software aplikazio baten egilearen identitatea eta edukiaren segurtasuna bermatzen ditu, ziurtagiri hori erabiltzen baita kode-sinadurarako. 3 urteko indarraldia du.

– Gailua

Ziurtagiri kualifikatu gabea; identitate bat sortzen du IoT ekosistema bateko objektuentzat, eta sinatutako dokumentuen segurtasuna eta jatorria bermatzen ditu. 10 urteko indarraldia du.

### 1.2 Erabilera esparrua

Ziurtagiria erabiltzea onartzen duten hirugarrenek eskainitako zerbitzuetan erabil daitezke ziurtagiri hauek, egiazkotasuna eta segurtasuna bermatzeko, [Izenperen Ziurtapen Praktiken Deklarazioan](#) definitutako baldintzekin eta mugekin.

### 1.3 Ziurtagiria identifikatzea

Ziurtagiri horiek identifikatu ahal izateko, Izenpek honako objektu-identifikatzaile (OID) hau esleitu die.

ZIURTAGIRIA	OIDa
Aplikazioa	1.3.6.1.4.1.14777.1.2.2
Kode-sinadura	1.3.6.1.4.1.14777. 1.3.1
Gailua	1.3.6.1.4.1.14777.1.3.2



## 2 ZIURTAGIRIAREN BIZI ZIKLOA

---

### 2.1 Ziurtagiria eskatzea

---

Eskatzailetzat hartuko da:

- Aplikazioa: aplikazioaren arduradun teknikoa.
- Kode-sinadura: erakundearen arduraduna.
- Gailua: pertsona fisiko edo juridiko interesduna.

Eskaera:

- Aplikazio-ziurtagiriak eta kode-sinadura.

Eskatzaileak ziurtagiria Jaulkitzeko Eskaeraren formularioa bete eta sinatuko du ziurtagiri kualifikatu baten bidez, eta [certservidor@izenpe.eus](mailto:certservidor@izenpe.eus) helbidera bidaliko du.

- Gailuaren ziurtagiriak.

Eskatzaileak webgune honetan eskuragarri dagoen aplikazio espezifikoaren bidez izapidetuko du eskaera: <https://servicios.izenpe.com/ticketbai/>.

### 2.2 Ziurtagiria jaulkitzeko eta emateko prozedura

---

- Aplikazio-ziurtagiria.

Ziurtagiria jaulki aurretik, eskatzaileak gako-pare bat sortu beharko du ziurtagirien edukiontzian, eta Izenperi bidali beharko dio eskaeraren fitxategi teknikoa (CSR).

Izenpek p12 formatuan bidaliko dio ziurtagiria eskatzaileari, *Jaulkitzeko Eskaeran* adierazitako posta elektronikoko helbidera.

- Kode-sinadura ziurtagiria.

Izenpek modu seguruan emango dio ziurtagiria eskatzaileari, txartel euskarrian eta/edo p2 formatuan; PIN eta PUK kodeak ere emango dizkio.

- Gailuaren ziurtagiria.

Izenpek eskatzailearen eskura jarriko du ziurtagiria <https://servicios.izenpe.com/ticketbai/> helbidean, p12 formatuan, eskatzaileak deskarga dezan.

### 2.3 Ziurtagiria egiaztatzea

---

Ziurtagiria jaulki, eta 15 egun baliodun izango ditu behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko, eta, beharrezkoa bada, Izenperi funtzionamendu-akatsak dituela jakinarazteko.



Funtzionamendu-akatsak kausa teknikoen ondoriozkoak direnean (ziurtagiriaren euskarriaren funtzionamendu txarra, ziurtagiriaren errore teknikoa, eta abar) edo Izenperi egotz dakizkiokeen ziurtagiriko datuetako erroreak direnean, orduan soilik ezeztatuko du Izenpek ziurtagiria eta beste bat jaulkiko du, ondoriozko gastuak bere gain hartuta.

## 2.4 Ziurtagiria ezeztatzea

---

### — Ezeztatzeko arrazoiak

[Izenperen Ziurtapen Praktiken Deklarazioan, www.izenpe.eus atarian](#), kontsulta daitezke.

### — Ziurtagiria ezeztatzeko eskaera

Honako hauek eska dezakete ziurtagiria ezeztatzea:

- [Gailuaren ziurtagiriaren titularra dela frogatzen duen hirugarren interesdunak.](#)
- [Eskatzaileak.](#)
- [Izenpek](#), ZPDan identifikatutako arrazoiaren ondorioz.

### — Prozedura

- [Aplikazioa eta kode-sinadura](#)

Eskatzaileak ziurtagiria ezezta dezake, EU TSLn (Trusted Service List) sartutako CA batek igorritako ziurtagiri kualifikatu batekin sinatutako ezeztapen eskaerarekin, [certservidor@izenpe.eus](mailto:certservidor@izenpe.eus) helbidera bidalita.

- [Gailua](#)

Eskatzaileak ziurtagiria ezezta dezake, EU TSLn (Trusted Service List) sartutako CA batek igorritako ziurtagiri kualifikatu batekin sinatutako ezeztapen eskaerarekin, [operaciones@izenpe.eus](mailto:operaciones@izenpe.eus) helbidera bidalita.

## 2.5 Ziurtagiriak berritzea

---

Ziurtagiria iraungi aurreko 60 eguneko epean berritu ahal izango da ziurtagiria.

Izenpek ziurtagiria jaulkitzeko eta entregatzeko aurreikusitako prozeduraren arabera tramitatuko du berritzea.

## 3 ZENBATEKOA

---

Izenpek urtero argitaratzen ditu aplika daitezkeen tarifak [www.izenpe.eus](http://www.izenpe.eus) webgunean.

## 4 ZIURTAGIRIEN PROFILAK

---

Izenpek [www.izenpe.eus](http://www.izenpe.eus) webgunean argitaratzen ditu ziurtagiriaren profilak.



## 5 INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA

---

Izenpek [www.izenpe.eus/datos](http://www.izenpe.eus/datos) webgunean argitaratzen du informazioaren segurtasunari eta pribatutasunari buruzko informazioa.

## 6 ALDAKETAREN KUDEAKETA

---

Izenperen Segurtasun Batzordeak onartuko ditu Politika honetan egindako aldaketak.

Berriazko dokumentazioaren bertsio eguneratuak [www.izenpe.eus](http://www.izenpe.eus) helbidean kontsultatu ahal izango dira.

## 7 ARAZOAK KONPONTZEKO MEKANISMOAK

---

Alderdiek elkarrean artean sor daitekeen edozein gatazka Zuzenbide Kolatobratiboko prozesu bidez ebaztea adostu dute. Adostasunik lortu ezean, Gasteizko Epaitegi eta Auzitegietara jo ahal izango dute.